

ABENDUA EUSKAL ATSOTITZETAN

"Nuestro pueblo ha sido tradicionalmente agrícola y ganadero, lo que supone haber vivido en contacto estrecho con la naturaleza. Mirando a las nubes por recurso e intuyendo sus planes, sabiendo leer el mensaje del viento y el susurro de los bosques, es como escribió con poso de siglos su calendario de predicciones".

J.M. Satrustegi: *Solsticio de Invierno.*

Atsotitzak hizkuntzaren bihotzean bizi dira, eta, ondorioz, herri baten bizipen eta pentsamoldeen lekuko dira. Honela, bada, informazio iturri onak dira antzinako gizarte burubideak aztertzeke. Bere laburtasunean, atsotitzak iraganeko bizimoduari eta pentsamoldeei buruzko informazio ugari ematen digute.

Artikulu honen xedea da euskal atsotitzak aztertuz, antzinako euskaldunek abendua nola bizi zuten ezagutzea, euskaldunon ohiturazko baloreen eta mundu ikuskeren ezagutza handitzeko helburuarekin.

Hasieratik esan gura dut azterketa honetan erabili ditudan atsotitzak ez ditudala nik neuk bildu. Aurretiaz batuta dauden atsotitz bildumetan oinarritu naiz. Guztira zortzi atsotitz bilduma aztertu ditut. Dena dela, hemen aurkezten ditudan atsotitz gehie-

nak lau bildumetatik datoz: Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza*, Damaso Intzaren *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak* bilduma, A. Zavalaren *Esaera Zaarren Bilduma Berria* eta Laka, Alkat, Mihura, Etxeandi eta Lekuonaren *Zahar hitz, zuhur hitz* bilduma.

Ez da erraza izan hemen aurkezten ditudan atsotitz guztien esanahia ezagutzea. Are gehiago, ziur nago zenbait interpreta-zio ez direla guztiz zuzenak. Beraz, eskertuko nizuke, irakurle, atsotitz baten azalpena ez dagoela ondo egin pentsatzen ba-duzu, edo interpretazioren bat hobeagotu egin daitekeela, zure iruzkin edo iritziak patxi.juaristi@ehu.es e-postara bidaliko ba-zenit. Aldez aurretik, eskerrik asko.

Abenduan elurra altzairuz, urtarrilean burdinez, otsai-lean zurez, martxoan lurrez, apirilean urez; maiatzean hegalez

Pello Zabalak dioen bezala, "Negua bere terrenoan dabil abenduan" (Zabala, 2000:465); eta ez zaio arrazoirik falta: abenduan hotza eta elurra egiten ditu. Hobe esanda, hotza eta elurra egiten zuen abenduan. Izan ere, denok dakigu oraingo negua eta iraganekoa ez direla berdinak. Lehen, gaur egun baino hotz, izotz eta elur gehiago egiten zuen abenduan. Uler-tzekoa da lehengo euskaldunen burubideetan abenduko elurra altzairuzkoa izatea. Alegia, euskaldunentzat abenduko elurra zen gogorrena, hotz eta izotz handien ondorioz, nekez urtzen zelako (*Abenduan elurra altzairuz, urtarrilean burdinez, otsailean zurez, martxoan lurrez, apirilean urez. Zuhur Hitz / Abenduan, elurra altzairuz; Urtarrilean, burdinez; Otsailean, zurez; Martxoan, lurrez; Apirilean, urez; maiatzean, hegalez.* Zavala, 7)¹. Inork jan nahi ez duen gazta zaharrak etxean irau-

¹ Azkuek bildutako atsotitz batek dio abenduko elurra burdinazkoa dela (*Abendua burdinazkoa, ilbeltza altzairuzkoa.* Azkue, 1633). Hala ere, atsotitz bilduma gehienek arabera abenduko elurra da altzairuzkoa.

ten zuen haina irauten zuen elurrak kanpoan (*Abenduko elurra, gazta zaharraren pare*. Intza, 2250).

Etxalde aberatsetan, hau da, gari, arto, egur eta abere ugari zegoen etxeetan arazorik gabe pasatzen zen abendua eta, oro har, negua (*Egin ezak, egin ezak euria, gure etxean bazegok garia. Egin ezak, egin ezak elurra, gure etxean bazegok egurra. Egin ezak, egin ezak kaskabilloa, gure etxean bazegok banka bikoa*. Azkue, 1156 / *Elur mehur, ez nauk hire beldur, etxean badiagu arto eta egur*. Azkue, 1160 / *Elur haina egur*. Intza, 383). Dena dela, abenduko elurte luzeetan, etxe askotan behar baino gehiago urritzen ziren elikagaiak eta abereentzako belarrak, edota behar baino egur gehiago erretzen zen. Abenduko elurrak hortz luzeak omen zituen (*Abenduko elurrak hortz luzeak ditu*. Zavala, 12). Elurra, zuria delarik, beltza da (*Elurra, zuria delarik, beltza da*. Azkue, 1163).

Abendu ederrak eta emazte ederrak ez dute etxaldea altxatzen

Abendua ez da hile xamurra artzain eta laborarientzat. Hotz handia egiten du. Hala eta guztiz ere, euskal nekazariak ez dute nahi beste era bateko eguraldirik. Pozik dabilta tenperatura baxuekin (*Abendu hotzak pozturik ezartzen laboraria*. Zavala, 9). Hobe esanda, baseritarrek sasoiari sasoiako eguraldia nahi dute: neguan hotza eta elurra, eta udan eguzkia eta beroa (*Elurra neguan eta giro ederra udaran, gauza denak bere sasoiari*. Zavala, 872 / *Neguan hotz eta udaran bero, horrelaxe urtero*. Zavala, 2186). Izan ere, badakite negu bigunegiak buelta izaten duela beti: neguko eguraldi beroak negua luzatzen du eta uda hotza ekartzen (*Negu bigunegiak, uda gogorregia*. Azkue, 1780). Euskaldunen burubideetan neguak edertzen omen du uda (*Neguak edertzen du uda*. Intza, 1262 eta Zuhur Hitz).

Honela, bada, abendu eguzkitsua eta beroa tokatzen bada, arduratuta ibiliko dira baserritarrak, horrelako eguraldiak ez

duelako etxaldea altxatzen (*Abendu beroak ez du laborarien moltsarik berotzen*. Zavala, 8 / *Abendu ederrak eta emazte ederrak ez dute etxaldea altxatzen*. Jean Elissalde, 1). Aldiz, abenduan hotza eta elurra egiten badu, pozik ibiliko dira, uztailean eguraldi eguzkitsua eta beroak izango direlako, eta, ondorioz, uzta onak hartuko direlako. (*Negua elurte, uda ogite*. Azkue, 1781 eta Zuhur hitz / *Abendua beze eta hotz, etxeke nagusia udan poz*. Zavala, 6 / *Negu elurtsu, urte garitsu*. Zavala, 2188 / *Negu gogorra noiz? Uzta boberik inoiz?* Zavala, 2189)².

Abenduko eguzki zuriarekin eta ostatuko neskaxa ederrarekin ez fidatu

Esan bezala, laborariak ez ditu gustuko abendu bero eta eguzkitsuak; beraz, abenduko eguzki zuriarekin edota abenduko izarrarekin ez da fidatzen; izan ere, ostatuko neska eder baina aurpegi gogorak bezala engainatzen dute (*Abenduko eguzki zuriarekin eta ostatuko neskaxa ederrarekin ez fidatu*. Zavala, 11 / *Abenduko izarrarekin eta ostatuko neskaxa ederrarekin, ez fidatu gehiegi*. Zavala, 13). Inork zaintzen ez duen bide ondoko arbolak, abenduko izarrak eta ostatuko neskak hondatzeko arrisku bera dute (*Bide-ondoko arbola, abenduko izarra, ostatuko neskaxa ederra: hirurek hondatzeko arrisku bera dute*. Intza, 729).

Eguzki zuridun abenduak kalte asko eragiten dizkie nekazari eta abeltzainei (*Neguko eguzki zuriaz ez fida*/Intza, 1263 / *Eguzki txuri, atze beltza*. Intza, 1012 / *Eguzki zuriaren ondoren, era-soa*. Zavala, 835). Izan ere, abenduko eguzki zuriak esan nahi du negua behar baino gehiago luzatuko dela, eta ardiek ezingo dutela belardietara joan udaberrian, ezta bildots edo axuririk hazi ere (*Abendu zuri, ez ardi eta ez axuri*. Azkue, 1632. Intza, 1098

² Antonio Zavalak atsotiltz hau bildu zuen: *Abendu leborra, urte ugaria*. Zavala, 16. Beste atsotiltzak ikusita, nire ustez, lehorra baino gehiago hotza esan behar luke.

eta Zuhur Hitz). Are gehiago, abenduan eguraldi beroa eta eguzkitsua badago uzta txarrak hartuko dira, apirilean eta maiatzean hotza egingo duelako (*Apirila botz, ez gari eta ez abotz*. Zuhur hitz / *Maiatz botz, ez hauts ez bibotz*. Azkue, 1753 / *Maiatz par-do, ogi eta ardo; maiatz botz ez gari ez abotz*. Azkue, 1754 / *Maiatz botz, ez gari ez abotz*). Aldiz, abenduko hotzek eta elurak gari asko ekarriko dute, hain zuzen ere, apirilean eta maiatzean eguraldi beroa egingo duelako (*Izotzak eta euriak dakartzate eskura gariak*. 1596ko atsotitzak, 492 / *Leia eta elurra garia dakar eskura*. 1596ko atsotitzak, 512 / *Elur urte, gari urte*. Azkue, 1136 / *Izotz urte, gari urte*. Azkue, 1201).

Santa Barbara: ahuntzak babara, ardiak erura, artzainak zerura, makila infernura, zakurra nahi duen lekura (abenduak 4)

Euskaldunek beldur diote ekaitzari. Horrelako mementu kritikoetan, ohikoa izan da erlijioaren edota izaki sakratuen babesa bilatzea (*Tzizerkorra eta elur, ni jaunaren beldur*. Azkue, 1221 / *Otoi sainduari, derauntsaino ekaitzari*. Oihenart, 662). Batez ere Santa Barbari erregutzen zaio trumoiak eta oinaztuak daudenean (*Trumoiak aditzean, Santa Barbara*. Zavalá, 2727 / *Santa Barbara bedeinkatu, zeruan dago iskribatu, papera eta ur bedeinkatu, Santa Barbara bedeinkatu!* P. Zabala, 468. orr. / *Santa Barbara, Santa Gurutz, Jauna erruki zaki-guz, inuzenteen ogia Jauna miseriakordia*. 55-Eusko-Folklore, 27). Etxeko guztien ongizatea eskatzen zaio Santa Barbari: ahuntzentzako eta ardientzako, hau da, etxeko abereentzako elikagaia eskatzen da (baba eta landareak edo erua), artzainak zerura joatea, eta makila edo zigorra infernura botatzca. Txakurra nahi duen tokira joan daiteke (*Santa Barbara: ahuntzak babara, ardiak erura*³, *artzainak zerura, makila infernura, zakurra, nahi duen lekura*. Intza, 998).

³ Eru landare bat da; aziendari ematen zaio jatera.

Santa Luzia eguna, argia gabe iluna (abenduak 13)

Bizkor iluntzen du abenduan (*Abenduko eguna, argitu orduko iluna*. Azkue, 1635, Intza 1097 eta 1715 eta Zuhur Hitz). Egunak labur eta gauak luze dira. Dena dela, egunik laburrena Santa Luzia eguna omen da. Hobe esanda, Santa Luzia eguna da urteko egunik laburrena (*Egunik luzeena, San Joanena; gaurik luzeena, Santa Luziena*. 49-Eusko Folklore, 8 eta Zavala, 817). Egun honetan argitu gabe iluntzen du (*Santa Luzia eguna, argia gabe iluna*. Azkue, 107 eta 252)⁴.

Hala ere, Santa Luzia pasatu ostean, eguna luzatzen hasten da. Oiloaren hatzaparra beste hazten omen da eguna, eta horri edonork igartzen dio, baita eroak ere (*Santa Luzia egunerako, eguna oiloaren atzaparra bazitzen: Eguberri eroak ere igarri*. Intza, 182 / *Santa Luzia eguneko, oiloaren arra luzatzen omen da eguna*. Zavala, 2619 / *Santa Luzia, oilaskoaren arra luzia*. Zavala, 2620) / *Santa Lutzitako, olon arrate*. Anuario Eusko Folklore, 2).

Egunak laburrak dira, eta, gainera, hotza, elurra eta izotza dago kanpoan. Ez da giro etxeko gizaki zein abereentzako. Ez da harritzekoa abereak gaixotzea eta hiltzea. Dena dela, astoa hiltzen bada, berri bat erosteko aukera izango da otsaileko San Blas-etako ferietan (*Santa Luzietan galtzen den astoa, San Blas-etan erosten da gazteagoa*. Zavala, 2621)⁵. Etxeko beste abereek bezala, astoak ere gaizki pasatzen du neguan. Maiatzeko eguzkia noiz etorriko zain egoten da pozik arrantza egiteko (*Heldutakoan maiatza astoak arrantza*. Zavala, 852).

⁴ Antzerako atsotitzak ditugu Damaso Intzaren bilduman eta Zuhur Hitz bilduman: *Santa Luzia eguna, argitu orduko iluna*. Intza, 1503 / *Santa Luzia eguna, argia deneke iluna*. Zuhur Hitz. Atsotitz baten arabera, Kontzesio egunean, argitu orduko iluntzen omen du (*Ama Birjina Abenduko, argitu orduko ilunduko*, Zavala, 114).

⁵ Santa Luziarekin loturiko atsotitzen artean honako hau aurkitzen dugu: *Santa Luzia, ezin utzia* (Zuhur Hitz). Pello Zabala dioen bezala, "Misterioitsu dator esaldi hau, begien bistarackin zerikusia ote duen edo, auskalo!" Zabala, P. (2000): Naturaren mintzoa, 479. orr.

Abendua, jai huts eta gau huts

Abenduan jai egun ugari izaten dira. Kontzesio eguna, Santu Tomas, Gabon gaua, Natibitate eguna... Areago, Eguberri bezpera igandea tokatzen bada, urte berri egunaren bezpera ere igandea izango da, eta, beraz, jai egun ugari izaten dira bata bestearen atzetik (*Bi jai egunek doakala: igande eta eguberri, eta gero igande eta urte berri*. Intza, 358). Honela, bada, euskaldunentzat abendua erdia gaua eta beste erdia jai da (*Abenduaren erdia, gaua; eta bertze erdia besta*. Azkue, 1634 eta Zuhur Hitz). Abenduak ez omen dauka egunik (*Abenduak egunik ez, jai huts eta gau huts*. Intza, 1291 / *Abendua, jai huts eta gau huts*. Intza, 2266 eta Zuhur Hitz).

Hala ere, beti dago lana baserrian. Jai ugari izanda ere, lan asko egin behar da beti lurretik zerbait aterako bada. Euskaldunentzat lanak ez omen ziren bukatzen maiatzaraino (*Abenduan laien, Martxoan laien, Maiatzean laien, eta orduan jaien*. Zavala, 10).

Santu Tomas, bukata egin eta ogia nahas (abenduak 21)

Gabonak hurbil daude. Zentzu honetan, Santu Tomas eguna egun aproposa da gabonetarako prestaketak egiteko. Besteak beste, arropak garbitzeko eta ogia egiteko eguna da (*Santu Tomas, bukata egin eta ogia nahas*. Azkue, 111 eta Zuhur Hitz)⁶.

Bestalde, egun honetan, Euskal Herrian egiten diren ferietan gabonetarako jakiak zein abereak erosteko eta saltzeko aukera izaten da. Askok izaten ziren Santu Tomaseko ferietan

⁶ Egunik laburrena Santa Luzia eguna bada ere, Santu Tomas egunarekin lotzen duen atsotitzik ere badago (*San Tomas, egunik laburrena*. Zavala, 2630). Nire ustez, atsotitz hau erratuta dago. Izan ere, euskal atsotitzen arabera, Santa Luzia eguna da egunik laburrena.

egindako salmenten diruarekin urteko alogera ordaintzen duten errenteroak. Hala ere, ez dira gutxi izaten alogera ordaintzeko arazoak dituztenak. Ferian gutxi saldu delako edota etxaldeko diru kontuak ez direlako ongi joan, izaten dira alogeraren dirua biltzeko larri dabiltzanak. Makina bat komeria izaten dira etxe askotan (*Santu Tomaseko feriak, etxe askotan komeriak*. Zavala, 2632).

Arazoak arazo, Gabon gauerako eta Natibitate egunerako prestaketak egiteko garaian gaude. Hiru egun falta dira neguko solstizioa ospatzeko. Gabon gauean eta Natibitate bazkarian mahairatuko diren elikagaiak prestatu behar dira, gabon zuzia behar bezala ebakita dago kortan, eta mihurarekin apainduta etxea (*Heldu denean negula, ken sagarrondoari mibula*. Zavala, 851)⁷.

Gabon, daukanak bonbon, ez daukanak zonzon (abenduak 24)

Abenduko egunik garrantzitsuena da gabon gaua. Beste giza talde askorentzat bezala, euskaldunontzat ere ospakizun berezia da. Lehen zein orain, jan eta edan ugari izaten da gure mahaietan.

Iraganean, nahi beste arto, gaztaina eta intxaur-saltsa jaten zen; gaur egun, okela eta arrain finak, turroiak eta ardo garestiak. Gabonetan gehiegizko jatorduak egitea aspaldiko ohitura da gure artean (*Ama, zeta da gura haina arto jan genuen gaua? -Ume, gabon gaua*. Eusko Folklore, 10).

Etxalde onean bizi direnek edo urte ona izan dutenek nahi beste janari izango dute. Pobrezia bizi direnek, aldiz, ahal duten moduan pasatuko beharko dute (*Gabon, daukanak bonbon, ez duenak zonzon*. Azkue, 783 eta 2393 / *Gabon, dagonean bonbon, ez dagonean egon*. Azkue, 783). Hala ere, beti

⁷ Pello Zabala dioen bezala (Zabala, 2000: 502): "Europar zehar, eta gurean ere hai, etxeak zenbait parajetan mihuraz hornituta ikusi izan dira Gabonetan".

daude txarto pasatzen ari direnekin gogoratzen direnak (*Gabon, daukanak ez daukanari emon*. Azkue, 783).

Jatordu pantagruelikoez gain, gabon gauean Olentzero etortzen da opariekin. Gaur egun, etxe gehienetan izaten dira opariak. Askotan opari gehiegi. Iraganean, ez zen horrenbeste oparirik izaten. Hala ere, zer edo zer izaten zen. Honela, bada, zerbaiten esker ona adierazteko gabonetan gerizak eskaini izan ohi dira gure artean (*Hau egin iezadazu, eta gero Gabonetan gerizak* 48-Eusko Folklore, 1 / *Zenbaiten esker guziak, gabonetan gereziak*. Zavala, 3026). Gerizak ekain edota uztailko fruitua direla kontuan izanik (*Eguteran gerizak, ospelean masustak*. Zavala, 827), gabonetan gerizak eskaintzea munduko oparirik onena eskaintzea beste da.

Natibitate ase eta bete (abenduak 25)

Natibitate eguneko bazkariak tradizio handia dauka Euskal Herrian. Egun horretan, familiak elkartzten dira bazkaltzera, eta, nahi beste jan eta edan ostean, jendea ase eta bete gelditzen da (*Natibitate ase eta bete*. 43-Eusko Folklore, 6). Jaki berezi, garesti eta exotikoak ateratzen dira mahaira, diruari gehiegi begiratu gabe. Iraganean, txokolatea bezalako jaki exotikoak jaten ziren etxe aberatsetan (*Gabon dela ona! Natibitate hobea, Natibitatek ekarriko jok, Txokolate sopea*. 52-Eusko Folklore, 6).

Eguberri ilargirik gabe, artzaina axuririk gabe

Ilargirik gabeko eguberriak izaten badira, artzainak axuria galtzen omen du (*Eguberri ilargirik gabe, artzaina axuririk gabe*. Azkue, 1144). Aldiz, eguberrietan ilargia badago, artzainak axuria izango du (*Eguberri ilargiarekin, artzaina axuriarekin*. Intza, 2432). Pello Zabalak dioen bezala (Zabala, 2000:495), "Ilargia izanik jaiotzen gidaria, sasoi honetan abiatzen ziren garai batean lehen bildots eta arkumeak. Gaur egun,

asko nahastu dira arkume jaiotzak, ia urte osoan jaioarazten dituztenak ere badira-eta. Orduan, ilargi jiran, hor izango zirela gogoratzen digu".

Bestalde, eguberrietan ilun badago, gari asko hartuko da uztailean (*Eguberri ilunetan, soroetan gari asko*. Zavala, 805). Aldiz, eguberrietan eguzkia badago, gariak lastoa besterik ez du izango; alegia, gari uzta txarra hartuko da (*Eguberri argi, lastotsu ogi*. Zavala, 799 / *Eguberri argitsu, ogia gero lastotsu*. Zavala, 800). Behin eta berriz esan bezala, euskal nekazariek ez dute nahi eguraldi eguzkitsurik abenduan. Baserritarrek sasoiari sasoiako eguraldia nahi dute: neguan hotza eta elurra, eta udan eguzkia eta beroa. Urteko eguraldian zikloa betetzen bada, baserritarren ekonomiak ez dira gaizki ibiliko.

Eguna luzatzen doa. Santa Luzia eguna pasatu da, eta zoro zein zohiek ere igartzeko moduan hasten ari da eguna (*Eguberri, zoroak ere igarri*. Azkue, 1146 / *Eguberri eroek igarri, zohiek ere larri*. Zavala, 804 / *Eguberri, eroak igarri, Urteberri oitloaren arra bete*. Zavala, 803).

Eguberri bezperako gauerdian zer haize, hurrengo tenporetaraino haize hura

Atsotitzen arabera, Eguberrietako eguraldiak hurrengo hiletan izango den eguraldia erakusten du. Batzuen ustez, eguberri bezperako gauerdiko haizeak erakusten du hurrengo tenporetaraino izango den haizea (*Eguberri bezperako gauerdian zer haize, hurrengo tenporetaraino haize hura*. Intza, 379). Beste batzuentzat, aldiz, eguberri gauerdiko haizeak erakusten du hurrengo hilabetean izango den haizea (*Eguberri gauerdian zer haize, hurrengo hilabetean haize hura*. Intza, 809). Azkenik, badaude ere pentsatzen dutenak eguberri ondorengo lehen sei egunek erakusten dutela hurrengo sei hilabeteetan izango den eguraldia (*Eguberri ondorengo lehenbiziko sei egu-*

nak nolako, burrengo urteko lehenbiziko sei hilabeteak halako. Zavala, 798).

Horretaz gain, eguberrietan dagoen ilargiak erakusten du nolakoa izango den inauterietako ilargia (*Eguberrietan ilbehera: totez (inauteriz) ilberri.* Intza, 1518). Eguberri egunak baita erakusten du asteko zein egunetan izango den urteberri eguna (*Eguberri zerekin, Urteberri harekin.* Intza, 2217). Alegia, asteko zein egunetan Eguberri, asteko egun berean Urteberri.

Azkenik, aipatzekoa da abenduko lainoek haize hegoa, elurra edo euria ekartzen dutela (*Abenduko lainoek, hegoa edo elurra.* Zavala, 14 / *Abenduko lainoa, euria edo hegoa.* Jean Elissalde, 3 eta Refranes y Sentencias, 4); batzuen ustez, abenduko lainoak sagarrak ere ekartzen ditu (*Abendu laino lanbrotsuak sagar asko ekartzen du.* Zavala, 15).

Eguberrietan eguzkia; pazkoetan elurra

Esan bezala, abenduan elurra eta eguraldi hotza nahi dituzte laborariek. Izan ere, eguberrietako eguraldi beroak esan nahi du Pazkoetan elurra, izotza eta hotza izango direla (*Eguberriko aro beroak, Pazkokoz bisten.* Zavala, 806 / *Eguberriarainoko larrazkena, Pazko arteko neguaren ama.* Zavala, 807 / *Eguberrietan eguzkia; Pazkoetan elurra.* Zavala, 797 / *Eguberriaz euliak... kasu! Ikusiko dituzu Pazkoz horma ziriak.* Zavala, 809 / *Olentzeroz leihoan, Pazkoetan sua.* Azkue, 1791 / *Eguberriaz itzalketa dabilenak bilatuko du Pazkoz supazterra.* Zavala, 808)⁸; eta horrek esan nahi du uzta galtzeko arriskua dagoela (*Negua berandu, uzta eraman du.* Zavala, 2184 / *Negua ez bada neguan gertatzen, udak ere buts egingen.* Zavala, 2185).

⁸ Zuhur Hitz bilduman atsotitz hau aurkitzen dugu: *Abenduko ulta edo zortia baino lotsagaheagoa.*

Bestalde, pentsatzekoa da Bizkaian Euskal Herriko beste herrialde batzuetan baino gehiago luzatzen dela negua, edo negua beste toki batzuetan baino gogorragoa dela. Bizkaiko negua garizumara arte irauten omen du (*Bizkaiko negua garizuman*. Azkue, 1541 / *Bizkaiko negua, garizuma*. Azkue, 1672).

Arbi errea abenduko, gauza guztiak bere garaiko

Abenduan gehiegikeri asko egiten dira. Euskal mahaietan nahi haina jateko izaten da. Hala ere, abendua arbi errea jateko garai ere bada (*Arbi errea abenduko, gauza guztiak bere garaiko*. Azkue, 1654 / *Denboraren denborako, arbi errea abenduko*. Azkue, 1675 / *Arbi abenduko, bakoitza bere denborako*. Azkue⁹, 1654 / *Nor bere denborako, arbia abenduko*. Azkue, 1787 eta Intza 905 / *Arbi errea abenduko, nor bere denborako*. Intza, 725 eta 1535 / *Danean dena, abenduan arbiak* Zavala, 687). Baba ere garai honetakoa da (*Gauza guztiak beren denboran, baba zabala abenduan*. Azkue, 1683).

Gabon, bonbon; natibitate, ase eta bete; san estebantxe, bestetan letxe (abenduarien 26a)

Gabon gaua eta Natibitate egunetan egindako gehiegikerien ostean, San Esteban egunean bizitzak lehengo bidetik jarraitzen du. Opariak eta gehiegizko afari eta bazkariak bukatu dira, eta betiko bizimodura bueltatu gara (*Gabon, bonbon; Natibitate, ase eta bete; San Estebantxe, bestetan letxe*. Azkue, 25 / *Natibitate ase eta bete, San Estebantxe handik aurrera leben letxe*. Azkue, 54 / *San Estebantxe, hemendik aurrera leben letxe*. 43-Anuario Eusko Folklore, 7). Sukaldeetan betiko su eta elikagaiak daude (*San Esteban su, leben bezalatsu*, Zuhur hitz).

⁹ Antzerako atsotitza aurkezten digu A. Zavalak: Denbora bakoitzeko gauza gozoa, arbi errea Abendukoa. Zavala, 704.

Eraiteko, abenduko hautsek baino azaroko lobiek hobe

Bi momentu garrantzitsu daude euskal egutegian: San Joan gaua eta Gabon gaua. Biak ere eguzkiaren aldaketekin loturik daude: San Joan gauean udako ekinozioa ospatzen da eta Gabon gauean neguko solstizioa. Bi ospakizunetan garrantzi handia du suak. Gabonetan gabon zuzia edo gabon mokorra erretzen da etxean. San Joan gauean suak egiten dira plazan (*Sua! Gabonetan txapan eta San Joanetan plazan*. Zavala, 2675). Plazan edo etxean, sua eguzkiaren aldaketarekin loturik dago Euskal Herrian.

Gure artean oso hedatua izan da Gabon gauean alde zurretik aukeratutako enbor bati sua emateko ohitura (*Sua, eguberri zurrurreki, pazkoz aldiz adarreki*. Oihenart, 411 / *Eguberri sua mokorrekin, bazkoz xixtapurrekin*. 1677, Azkue). Enbor horri gabon zuzia edo gabon mokorra deitzen zaio, eta bere errautsak soloetan zabaltzen dira San Esteban egunean. Horrekin uztan onak lortu nahi dira. J. M. Etxebarriak dioen bezala "Gabon zuziaren suaz aparte, erreta geroko hauts eta iduriak soloetan zabaltzen ziren San Esteban egunean, koxitza onak lortzeko, eta hauts-iduriok gurutzetara botaz gero, pizti txarrak uxatzeko ere ona izaten ei zelakoaren ustea zegoen" (Etxebarria, 2003:196). Dena dela, hauts hauek propietate miragarriak badituzte ere, hobeagoa da azaroan lurrari botatzen zaion ongarria (*Eraiteko, abenduko hautsek baino azaroko lobiek hobe*. Intza, 1313).

San joan, jan-edanak joan (san joan ebanjelaria, abenduak 27)

Abenduaren 27an San Joan Ebanjelariaren eguna ospatzen da¹⁰. Dagoeneko joanak dira Gabon gaueko eta Natibitate eguneko gehiegikeriak (*San Joan, jan-edanak joan*. Azkue, 76).

¹⁰ Damaso Intzaren bildumako atsotitz baten arabera, San Joan Ebanjelariaren egunean argitu orduko iluntzen du (*San Joan eguna, argitu orduko iluna*. Intza, 83). Nire ustez, atsotitz hau San Joan egunari baizik Santa Luzia egunari dagokio.

San Txilibristo, bisigua ezpainenetik dingilizka (abendua 31)

San Txilibristo edo San Silbestre eguna heldu da. Urtea bukatu da. Beraz, garaia da urtean zehar gertatutakoei eta egin-dakoei buruz gogoeta egiteko. Izan ere, abendua bukatu arte ezin omen da urteaz gaizki esaka ibili (*Urteaz ez erran gaizkirik abendua bururatu arte*, Zuhur Hitz). Gauzei behar bezalako amaiera eman arte hobe da ezer ez esatea; azken momentura arte ez dakigu gauzak nola joango diren edo zer gertatuko den.

Urteko azken eguna norbere bizitzari buruz gogoeta egiteko garaia da. Beti lanean dabilena, estresatuta eta atsedetik hartu gabe arlote gisa dabil urtearen bukaeran. Lan ugari egiten, diru pila irabazten agian, baina bizi kalitate txarrarekin. Gure bizimodua gure eguneroko ekintza eta portaeren ondorio zuzena dela ahanzten zaigu sarritan (*Jatan lan egiten du-na, San Silvestre egunean pantalon zaharrekin. Intza, 1590 / Jai eguna lanerako? Galtza zabarrak betirako. Zavala, 1464 / Jai egun da lanera? Alea jaigi eta lastoa bahera. Zavala, 1465 / Jai eguneko lanak ez du inor aberastu. Zavala, 1466 / Jaietako lanak irabazirik ez. Zavala, 1467*). Alferrik da hileta jotzea: urte guztian gaizki dabilenak Martzelinok bezala bukatzen du: galtza zaharrekin (*Urte berri naiz urte zahar, Martzelino beti galtza zahar. Azkue, 921 / Urte berri eta urte zahar: Martzelino galtza zahar. Intza, 1925*).

Urteko egunik laburrena, Santa Luzia alegia, pasatu da, eta zoroak ere igartzeko moduan hasten ari da eguna (*Urte zarrez mikirri, eroak ere igarri; zintzook asko ez. Azkue, 1831*).

San Silbestre eguna bisiguak hartzeko eta jateko eguna ere omen zen (*San Txilibristo, bisigua ezpainenetik dingilizka. Azkue, 103*). Beste garai batzuk ziren: arrantzaleek bisigu asko harrapatzen zituztenean. Gaur egun, inor gutxi dabil bisigua ezpainenetik dingilizka duela. 30 euro baino gehiago balio ditu bisigu kiloak horrela ibiltzeko. Askoz ere gauza merkeagoekin

kontentatu behar (*Urte zaharra bukatzean, sagu-zaharra bu-
rruntzian*. Zavala, 2908).

Bibliografia

- AZKUE, R.M. (1989): *Euskal Herriaren Yakintza, Literatura Popular Del País Vasco III Proverbios, Modismos, Lenguaje Infantil, Traba-
lenguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe,
Madrid, (Tercera Edición).
- BARANDIARAN: *Eusko Folklore*.
- ETXEBARRIA, J.M. (2003): *Euskal urtea obituraz betea*. Ibaizabal.
- INTZA, D. (1974): *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak*. Institución Prin-
cipe de Viana.
- LAKA, J.L., ALKAT, E., MIHURA, F., ETXEANDI, I. eta LEKUONA, M. (1984):
Zahar bitz, zuhur bitz. Bertsularien Lagunak Elkarte.
- LARRESORO (1971): *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Editorial Herri-Gogoa,
Donostia.
- SATRUSTEGI, J.M. (1988): *Solsticio de invierno*. Lizarrta.
- URQUIJO, J.: "Los Refranes y Sentencias de 1596". *RIEV* V, VI, VII, VIII,
XIX, XX, XXI, XXII, XXIII, XXIV.
- ZABALA, P. (2000): *Naturaren mintzoa. Egunez egun, sasoién gurgpile-
an*. Alberdania, Irán.
- ZAVALA, A (1985): *Esaera Zaarren Bilduma Berria I eta II*. Auspoa,
Tolosa.

Patxi Juaristi.